DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Ondarea
Patrimonio

Ijentea, 1 | Tel. 900714033 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

SERVICIO PROVINCIAL DE
COSTAS DE GIPUZKOA

AJ/ ABB
Esp. zk.: NI 2022/07

Donostiako Gobernu Batzarrak 2023ko urtarrilaren 17ko saioan honako Akordioa hartu zuen:

La Junta de Gobierno Local, con fecha 17 de enero de 2023, adoptó el siguiente Acuerdo:

Urumea ibaiak Donostia zeharkatzen du eta Zurriolako hondartzaren ondoan itsasoratzen da. Hondartza horren ertzak zenbait zubik lotzen dituzte, eta horietan bigarrena Santa Katalina zubia da, eraikitzen lehena izan zena.

El río Urumea atraviesa la ciudad de Donostia-San Sebastián y desemboca junto a la playa de la Zurriola, cuyas orillas están unidas por varias puentes, siendo el segundo de ellos el Puente Santa Catalina, que fue el primero en construirse.

Gobernazio Ministerioaren 1866ko ekainaren 2ko Errege Aginduaren bidez, behin betiko onartu zen hiriko Zabalgunearen Plangintza, onura publikoko obra deklaratutakoa, egungo Santa Katalina zubiaren eraikuntza ekarri zuena. Zubiaren proiektua Antonio Cortazar jaunak diseinatu zuen eta José Antonio Arzuaga jaunak eraiki, lanak 1870ean hasi eta 1872ko ekainaren 23an inauguratu zelarik. Estilo neoklasikoko zubia da, harlanduz egina, 127 metroko luzerakoa eta 12 metroko zeharkako sekzioarekin. Espedientean jasota dago Proiektu eta Obren Zuzendaritzaren 2022ko azaroaren 22ko Memoria bat, Santa Katalina Zubiari buruzkoa.

Mediante Real Orden del Ministerio de la Gobernación de fecha 2 de junio de 1866 se aprobó definitivamente el Planeamiento del Ensanche de la ciudad, declarado obra de utilidad pública, que dio pie a la construcción del actual Puente de Santa Catalina. El proyecto del puente fue diseñado por D. Antonio Cortazar y construido por D. José Antonio Arzuaga, cuyas obras comenzaron en 1870 y fueron inauguradas el 23 de junio de 1872, resultando un puente de corte neoclásico realizado en sillería, con una longitud de 127 metros y una sección transversal de 12 metros. Obra en el expediente una Memoria de la Dirección de Proyectos y Obras de fecha 22 de noviembre de 2022 sobre el Puente Santa Catalina.

Hiriaren garapen gero eta handiagoak zubiaren zabalera egungo 25 metrora handitu beharra eragin zuen, 1925ean burutu zena. Espedientean jasota dago 1924ko Santa Katalina Zubiaren Handitze-proiektua.

El creciente desarrollo de la ciudad provocó la necesidad de la ampliación del puente hasta los 25 metros actuales de anchura, llevada a cabo en 1925. Obra en el expediente el Proyecto de Ampliación del Puente Santa Catalina de 1924.

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Ondarea
Patrimonio
Ijentea, 1 | Tel. 900714033 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

Kostaldeei buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legearen 3. artikuluak dioenez, Estatuko itsas-lehorreko jabari publikoko ondasunak dira itsasertzak eta itsasadarretako ibaiertzak, eta horien artean sartzen dira itsas-lehorreko eremua edo itsasbehera eskoratuaren edo gehieneko lerro bizi ekinokzialaren eta ezagutzen diren denborale handienetan olatuek hartzen duten mugaren arteko eremua, erregelamendu horrek 4. artikuluak ezartzen dituen irizpide teknikoekin bat etorriz, edo, hori gainditzen duenean, gehieneko itsasgora bizi ekinozialaren lerroarena. Eremu hori ibaien ertzetatik ere hedatzen da, mareen eragina sentikorra egiten den lekuraino.

El artículo 3 de la Ley 22/1988, de 28 de julio, de Costas, señala que son bienes de dominio público marítimo-terrestre estatal la ribera del mar y de las riberas de las rías, que incluye la zona marítimo-terrestre o espacio comprendido entre la línea de bajamar escorada o máxima viva equinoccial y el límite hasta donde alcanzan las olas en los mayores temporales conocidos, de acuerdo con los criterios técnicos que establece el artículo 4 de este reglamento o, cuando lo supere, el de la línea de pleamar máxima viva equinoccial. Esta zona se extiende también por las márgenes de los ríos hasta el sitio donde se haga sensible el efecto de las mareas.

Eragindako kosta-zatia 1999ko apirilaren 27ko Ministro Aginduaren bidez mugatuta dago. Santa Katalina Zubiaren jasotze topografikoaren plano erantsietan mugaketa-lerro horiek zehaztuta daude, zubiak itsas-lehorreko jabari publikoko 3.310 m²-ko azalera hartzen du.

El tramo de costa afectado está deslindado por Orden Ministerial de 27 de abril de 1999. En los planos anexos de levantamiento topográfico del Puente de Santa Catalina vienen definidas dichas líneas de deslinde, resultando que el puente comprende una superficie de 3.310 m² de terreno de dominio público marítimo-terrestre.

Aipatutako Kostaldeei buruzko Legearen 64.1 artikuluak eta Kostaldeei buruzko Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 10eko 876/2014 Errege Dekretuaren 131. artikuluak xedatzen dutenez, obra edo instalazio desmuntagarriak dituzten Estatuko itsas-lehorreko jabari publikoko ondasunen okupazio oro Estatuko Administrazioak aldez aurretik emandako emakidaren mende egongo da.

El artículo 64.1 de la citada Ley de Costas y el artículo 131 del Real Decreto 876/2014, de 10 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento General de Costas, disponen que toda ocupación de los bienes de dominio público marítimo-terrestre estatal con obras o instalaciones no desmontables estará sujeta a previa concesión otorgada por la Administración del Estado.

Gaur egun, Santa Katalina Zubiak ez du dagokion administrazio-emakidarik, eta emakida hori ematea Trantsizio Ekologikorako eta Estatuko Administrazio Orokorraren Erronka Demografikorako Ministerioari dagokio.

A día de hoy, el Puente Santa Catalina no dispone de la correspondiente concesión administrativa, cuyo otorgamiento compete al Ministerio para la Transición Ecológica y el Reto Demográfico de la Administración General del Estado.

Bestalde, 33/2003 Legeak, azaroaren 3koak, Herri Administrazioen Ondarearenak, aplikazio orokorrekoa den 15. artikuluan eta 1372/1986 Errege Dekretuak, ekainaren 15ekoak, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duenak, 10. artikuluan diote ordenamendu juridikoan aurreikusitako edozein modutan eskuratu ditzaketela toki erakundeek ondasunak edo eskubideak, onako kasuan bezala, emakida-administratibo bidez.

Por su parte, el artículo 15 de la Ley 33/2003, de 3 de noviembre de Patrimonio de las Administraciones Públicas, que es de aplicación general, y el artículo 10 del Real Decreto 1372/1986, de 13 de junio, del Reglamento de Bienes, señalan que las Corporaciones Locales pueden adquirir bienes o derechos por cualquiera de los modos previstos en el ordenamiento jurídico, como en el presente caso, mediante concesión administrativa.

Ondorioz, aurrekari horiek eta itsas-lehorreko jabari publikoa okupatzeko araubidea kontuan hartuta, beharrezkoa da administrazio-emakida eskatzea Donostiako Urumea ibaiaren gaineko Santa Katalina zubia kokatuta dagoen itsas-lehorreko jabari publikoko 3.310 m²-ko azalera okupatzeko.

En consecuencia, dados los mencionados antecedentes y el régimen aplicable a la ocupación del dominio público marítimo-terrestre, es necesario proceder a solicitar la concesión administrativa para la ocupación de una superficie de 3.310 m² de dominio público marítimo-terrestre donde se ubica el Puente Santa Catalina sobre el río Urumea de Donostia-San Sebastián.

Dagokigun kasuan, eta kontuan hartuta zubia 1872koa dela, 876/2014 Errege Dekretuaren 152. artikuluan xedatutakoaren ondoreetarako, eraikuntzaren egungo egoeraren memoria eransten da.

En el caso que nos ocupa y teniendo en cuenta que el puente se trata de una construcción consolidada que data de 1872, se acompaña, a efectos de los dispuesto en el artículo 152 del Real Decreto 876/2014, memoria del estado actual de la edificación.

Horiek guztiak kontuan hartuta, Ogasun eta Finantzetako Zinegotzi Ordezkariak 2022ko urtarrilaren 18an emandako eskuordetza baliatuta, honako erabakiak hartzea proposatzen dio **TOKIKO GOBERNU BATZORDEARI**:

En base a cuanto antecede, el Concejal Delegado de Hacienda y Finanzas por delegación de 18 de enero de 2022, propone a la **JUNTA DE GOBIERNO LOCAL** que adopte los siguientes:

## ERABAKIAK

1.- Estatuko Administrazio Orokorreko Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioari Donostiako Urumea ibaiaren gaineko Santa Katalina

## ACUERDOS

1º.- Solicitar al Ministerio para la Transición Ecológica y el Reto Demográfico de la Administración General del Estado, la concesión administrativa para la ocupación

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Ondarea
Patrimonio

Ijentea, 1 | Tel. 900714033 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

Zubiaren itsas-lehorreko jabari publikoko 3.310 m² okupatzeko administrazio-emakida eskatzea.

de una superficie de 3.310 m² de dominio público marítimo-terrestre donde se ubica el Puente Santa Catalina sobre el río Urumea de Donostia San-Sebastian.

2.- Ahalmena ematea, zuzenbidean eskatzen den behar bezain zabala, Ogasuneko eta Finantzetako zinegotzi ordezkariari erabaki hau betearazteko behar diren egintzak eta agiri publiko eta pribatuak egiteko.

2º.- Facultar al Concejal Delegado de Hacienda y Finanzas tan ampliamente como en derecho requiera, para que realice los actos y otorgue los documentos públicos y privados que resulten necesarios para hacer efectivo el presente acuerdo.

Beraz, jakin dezazun eta behar diren ondorioetarako jakinarazten dizut bide administratiboari amaiera ematen dion ebazpen honen aurka berrikusteko errekurtsoa aurkeztu dezakezula Udal Gobernu Batzarraren aurrean, hilabeteko epean, edo, bestela, 2 hilabeteko epean, Donostiako Auzitegian auzi errekurtsoa ere jarri dezakezula.

Lo que le comunico para su conocimiento y efectos, indicándole que contra el presente Acuerdo, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponer Recurso de Reposición ante la Junta de Gobierno Local, en el plazo de un mes, o impugnarla directamente en el plazo de dos meses, ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo de Donostia-San Sebastián

Donostian, sinaduraren egunean

EKONOMIA KUDEAKETAREN ZUZENDARIA

Sin.: Pedro María Ugartemendia Garro